



Argazkiak: Juan Carlos Ruiz / Argazki Press

# Izaeraz txiki, indarrez handi

Datorren igandean ospatuko duten festa handia prestatzen ari da buru-belarri Altzo herria. Herri osoa bat eginda lanean ari da Eskola Txikien XXII. Festa antolatzen.



herri eta auzo txikiak bizirik

Herri txikia da Altzo, eta txikia du eskola ere, baina handien adinako indarrez eta gogoz ari dira euren festa prestatzen: eskola txikien festa. 27 eskola txiki dira Gipuzkoan, eta, urtero, herri bati egokitzen zaio festa antolatzea. Altzoko herriari eta Imaz Bertsolaria eskolari egokitu zaie Eskola Txikien XXII. Festa antolatzea. Datorren igandean, ekainaren 13an, izango da. Eskola txikiak osatzen dituzten ikasleek, irakasleek eta gurasoek euren eguna ospatzea da festaren as-

moa. «Egun-pasa polit bat antolatzea eta ongi pasatzea da asmoa», aitortu digu Mila Etxeberriak, eskolako zuzendariak. «Txiki garena ospatu nahi dugu. Txiki garenak batzen garenean ez gara hain txiki erakustea da helburua», gaineratu du Mikel Olanok, Santilazpi guraso elkartereko lehendakariak. Era berean, eskolak eta haren inguruko jarduerak herria bizirik mantentzen dutela, herriari arnasa ematen diotela zabaldu nahi dute antolatzaileek lau haizetara. Euren txikitasunaz harro dardela erakusteko, festa handia antolatzen dihardute altzotarrek. «Denetarik egongo da», aurreratu digu Olanok.

**Herri osoa lanean**  
Laurehun biztanle baino ez ditu Altzok, eta azken boladan helbu-

ru bakar baten alde dihardute lanean herritarrek. Txiki izatek handi izatera urrats bat baino ez dagoela erakutsi dute altzotarrek. Hala, eskola txikien festa antolatu behar zela jakin zutenetik, indarrak batu eta herri guztia inplikatu da antolaketa lanean.

«Festa gardenia izatea nahi genuen; hasieratik informazioa denen eskura egon da, eta herriak bikain erantzun du. Hasieratik, herritar guztiak parte hartu nahi izan dute. Gurasoak, irakasleak, Udala, herritarrak... guztiak buru-belarri inplikatu dira», argitu digu guraso elkartereko lehendakariak.

Urte osoan gogotik lan egin dute, baina guztien laguntzari esker, nekeak arinagoak izan dira. «Ordu asko sartu ditugu honetan. Baina saiatuz gero jendeak asko eman dezakeela oharitzen zara, eta horrek izugarri betetzen zaitu. Helburuak handiak izanagatik, finkatuz gero, lortu egiten daitezkeela konturatzen zara», dio, hunkituta, Olanok.



## Udaletxe azpitik eraikin berrira

Dozena bat urte ditu Altzoko eskolak. Orain hamabi urte, bederatzi ikaslerekin hasi zuten ikasturtea, udaletxe azpiko lokalean. Pixkanaka, haur kopurua handituz joan zen, eta udalari pare bat gela eskatu behar izan zioten, ikasle guztiak sartu ahal izateko.

2005ean, lekuarekin zituzten arazoak amaitu ziren, eraikin berria estreinatu baitzuten. Herrigunetik urrunago dago eraikina, baina handiagoa, politagoa eta berriagoa da Imaz Bertsolaria eskola.

59 ikasle eta hamar irakasle osatzen dute eskolako familia. Haur Hezkuntzako bi gela dituzte, eta Lehen Hezkuntzako hiru. Gela berean bi maila nahasten dira. Nahasketa hori, baina, oztopo izan beharrean «abantaila» dela dio irmo zuzendariak. «Proiektu bateratuak egiten ditugu, eta nagusiagoak txikiagoei laguntzeko prest agertzen dira beti. Normalean, taldeka lan egiten dute, eta elkarri eraginez ikasten dute. Handiek, normalean, ekarpen gehiago egiten dituzte, baina txikiek ere, euren txikitasunean, beti eskaintzen dute zerbait», gaineratu du.

Hala, eskola osoa proiektu berean inplikatu egoten da. Aurtengo ikasturteko lehen hiruhilekoan, poesia lantzen aritu dira lanean, eta, orain, errezeptak lantzen dihardute.

Ikasgelaz gain, jangela, erabilera anitzeko gela, psikomotritzitate gela, informatikako gela eta liburutegia ere badiutuzte Imaz Bertsolaria eskolan. Eta atsedenerako patio handi bat. Eta, euria egiten duenerako, frontoi estalia dute alboan.

Txikiak dira berez, baina handiek bezainbeste lan eta proiektu dituzte. Altzoko eskola handia da bere txikitasunean.

### EGITARAUA

Hona hemen egun handia ospatzeko antolatutako ekintzak:

**10:30ean:** Harrera ekitaldia, plazan.

**11:30ean:** Haur jolasak, eskolan eta frontoian.

**13:30ean:** Lekuko aldaketa.

**14:30ean:** Bazkaria: catering-a, frontoian, eta etxetik dakartenek, plazako karpan.

**16:30ean:** Pirritx eta Porrotx, plazan.

**19:00etan:** Lain taldesren kontzertua, plazan.

**20:30ean:** Bertsolariak, plazan. Festaren agurra.

**21:00etan:** Oinazez erromeria taldea.

### Egun osoan...

Altzoko erraldoiaren parodia, konpartsa, kalejira...

**13:00etatik 17:00etara:** Puzgarriak, plazan.

**14:00etatik 18:00etara:** Puzgarriak, frontoiko bidean.

**11:00etatik 18:00etara:** Erakusketak.

**10:30etik 19:00etara:** Zetreroa.

**15:00etatik 18:00etara:** Eskulan tailerrak.

**15:00etatik 18:00etara:** Karsak, eskolan.

**16:00etatik 19:00etara:** Rokodromoa, frontoian.

### ABESTIA

Amets polit polit bat izan dut bart izan txindar baten bueltan genbiltzan festan. Bi ginen ta zu hiru zenbat miru laugarrena badator barrezka jator.

LEHEN TXIKI GINENOK IA HANDI GARA ASKOZ HANDIAGO ZU BATZEN BAZARA.

Guk suari mintzoa ta hauspoa suak guri beroa eta geroa. A, e, l, o eta u egin ulu suaren kedar beroaz hegan baigoaz.

ALTZOK HARTZEN ZAITU ALTZOAN.

LEHEN TXIKI GINENOK IA HANDI GARA ASKOZ HANDIAGO ZU BATZEN BAZARA.

Letraren egilea: Maider Osa (Arrasate).  
Musika: Maixa Lizarribar.

Iaz Berrobin ospatu zen festan jaso zuten jaia antolatzeko lekuak altzotarrek, eta, geroztik, herri osoak batuta dihardu lanean. Herri batzar bat egin zuten hasieran, herritarrei festa aurkitzeko. Beste batzar bat egin dute orain. Guztia amaitutakoa, azken batzarra egingo dute, jaiaren azterketa egiteko eta eskerrak emateko.

«Oso neketsua da halako festa bat antolatzea, baina oso esperientzia baikorra izan da, dudarik gabe», aitortu digu Olanok.

Neke eta izerdi guztiak ezerezean geratzen dira, eskola txikien indarra aldarrikatzeko festaren alde erabiltzen badira. Txikiak izanik, batuz gero, handi bihurtzen direla ondotox frogatu dute altzotarrek.